

**AZPEITIKO UDALA***Iragarkia*

Arauk eskatzen duen jendaurreko argibide epea inolako murtzilorik eta oharpenik izan gabe igaro denez, tinkotzat eta behin-betiko onartutzat jo da 2012ko martxoaren 6an egindako Udalbatzaren Osoko Bilkuran hartutako akordioa, Azpeitiko Perdillegin karabana eta autokarabanak aparkatzeko eremu publikoa erabiltzeko araudia onartzeari dagokiona.

Toki Errejimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, udal Agintarauaren testu osoa argitaratu da. eta hamabost lan-egun igarotzen direnetik izango du indar. Hori guztia, aipatu berri den Legearen 65.2. artikuluen arabera.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

**KARABANENTZAKO ETA AUTOKARABANENTZAKO  
APARKALEKU PUBLIKOAREN ARAUTEGIA**

Azken urte hauetan herriko kaleetan dauden aparkalekuetan autokarabana eta karabanak aparkatu izan dira denbora luzean, zenbait kasutan herriko gainontzeko ibilgailuei (turismo) aparkatzeko aukera kenduz. Ibilgailu hauek, bestalde, bere funtzioa bete dezaten gutxieneko zerbitzu batzuk eskuragai izan behar dituzte, hala nola, argindarra edota ura.

Ibilgailu hauek dituzten herritarrei nolabaiteko irtenbidea emateko helburuarekin Udalak eremu berezi bat jarri du Perdillegi kalea, 1eko atarian, eta bertan hainbat aparkaleku egokitu dira. Jabari publikoko aprobetxamendu berezia eta denboran mugatua duten aparkaleku horiek uraren eta argindarra-zen zerbitzuak izango dituzte eskuragai.

Eremu berezi hori erabiliko duten ibilgailuen jabeek eremua bera eta dauden zerbitzuak antolatze eta elkar-laguntza bat bultzatzeko asmoarekin BAGOAZ izena duen herri mailako elkarte sortu dute. Udala eta BAGOAZ elkarte hori elkarlanean arituko dira eremurako zerbitzuak osatu, antolatu eta kudeatzeko. Izan ere, ezinbestekoa da eremuko erabiltzaileek zerbitzu eta instalazioen erabilera egokia egitea.

Eguneroko harremanetan Elkarteko organoen gain izango da eremuko ikuskapena, eta horretarako Udalaren arautegia izango dute kontuan. Horrez gain, elkartek berak bere arautegi propioa ere izango du, kide guztiek —elkartekoak ez direnak barne—, bete beharko dutena. Udalak arautegi hori ezagutzen du eta ontzat ematen du.

Zerga arloan, dagokion udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik Udal agintarauak zehaztu duen tasa ezarriko zaie erabiltzaileei.

Udalaren arautegia honako hau da:

1. Udalak eskatzen duenean (herriko zaindariaren jaietan eta abar), erabiltzaileek kendu egin beharko dituzte autokarabanak instalazio horietatik, eta Udalak egun horietarako zehaztuko duen tokira eramán.

**AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA***Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentaria sin que se haya presentado reclamación ni observación alguna, se ha elevado a firme y definitivo el acuerdo adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 6 de marzo de 2012, relativo al reglamento para la utilización de un aparcamiento público para caravanas y autocaravanas en la zona de Perdillegi de Azpeitia.

De conformidad con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto del reglamento, que entrará en vigor transcurrido el plazo de quince días hábiles. Todo ello de conformidad con el art. 65.2 de la Ley referenciada.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

**NORMATIVA DEL APARCAMIENTO PÚBLICO PARA  
CARAVANAS Y AUTOCARAVANAS**

En los últimos años se han aparcado caravanas y autocaravanas durante prolongados plazos de tiempo en los aparcamientos existentes en las calles del municipio, reduciendo en algunos casos las posibilidades de aparcamiento a los restantes vehículos (turismos) del municipio. Los citados vehículos, por su parte, necesitan una serie de servicios mínimos para cumplir su cometido (agua y corriente eléctrica, entre otros).

Con el objeto de ofrecer una posible solución a los vecinos propietarios de este tipo de vehículos, el Ayuntamiento ha dispuesto un área especial en el patio del inmueble de c/Perdillegi, 1, en el cual se han habilitado varias plazas de aparcamiento. Dichas plazas de aparcamiento que disfrutaban de un aprovechamiento especial del dominio público limitado en el tiempo dispondrán de servicio de agua y corriente eléctrica.

Con el objeto de organizar dicha área y los servicios, y promover la mutua cooperación, los propietarios de vehículos que harán uso de dicha área especial han constituido una asociación local denominada BAGOAZ. El Ayuntamiento y dicha asociación BAGOAZ colaborarán en la creación establecimiento, organización y gestión de servicios para dicha área, puesto que es imprescindible el uso adecuado de los servicios e instalaciones por parte de los usuarios del área.

Las labores cotidianas de supervisión serán llevadas a cabo por los órganos de la Asociación, en base a la normativa municipal. Así mismo, la asociación dispondrá de una normativa propia que deberán cumplir todos los miembros, incluidas las personas ajenas a la Asociación. El Ayuntamiento tiene conocimiento de dicha normativa, que aprueba.

Respecto a la tributación, se aplicará a las personas usuarias la tasa aprobada en la ordenanza municipal para la utilización privativa y aprovechamiento especial del dominio público municipal.

La normativa municipal es la siguiente:

1. En las fechas indicadas por el Ayuntamiento (fiestas patronales, etc.) las autocaravanas deberán retirarse de las citadas instalaciones, y trasladarlas a la zona habilitada por el Ayuntamiento para dichas fechas.

2. Baimenaren titularrak eremuko instalazio eta/edo zerbitzuak erabili ahal izango ditu. Edozein kasutan, eremuko instalazio eta/edo zerbitzuen ikuskaketa BAGOAZ Elkartearen gain izango da, eta erabiltzaileak elkartearen erabilera baldintzak bete beharko ditu.

3. Instalazio eta/edo zerbitzuak baimendutako autokarabana aparkatzeko eta mantentze-lanak egiteko bakarrik eta soilik erabiliko dira.

4. Guztiz debekatua dago instalazio horietan autokarabana garbitzea eta kanping jarduerak egitea.

5. Aparkaleku plazak zehazten direnean, horiek errespetatu egin beharko dira. eta autokarabanarik ez dagoenean, auto bat utzi ahal izango da haietan. Nolanahi ere, ohartarazi nahi da eremuaren helburua autokarabana eta karabanak direla eta ez gainontzeko ibilgailuak. Horregatik, ezingo da autoa modu iraunkorrean utzi aparkatuta (autokarabanarekin bidaiatzen ari diren bitartean).

6. Ezinbestekoa da erabiltzaileek zerbitzu eta instalazioen erabilera ona egitea, bai eta, haietan akatsak edota funtzionamendu okerra ikusiz gero, BAGOAZ Elkartearen Zuzendaritza Batzordeari jakinaraztea ere. Batzorde hau Udalarekin harremanetan jarriko da akatsak konpontzeko. Zerbitzu hauen mantenimendua, aparkalekuko hesia eta atea barne, Udalaren ardura izango dira.

7. Udalak ezin izango du baimenik eman eremuan plaza liberrik ez balego. Nolanahi ere, itxaron-zerrenda bat egingo da plaza liberrik egongo ez balitz, hurrenkera kronologikoaren arabera betetzeko sor daitezkeen plaza libreak.

8. Aparkaleku hori erabiltzeko baimena urte amaiera artekoa izango da eta urtez urte luzatuko da dagokion tasa ordaindu ondoren, eta beti ere, Udalak edo erabiltzaileek eragozpenik izan ezean.

9. Udal jabari publikoaren aprobetxamendu bereziarengatik Udal-agintarituak ezarritako tasa ordaindu beharko du erabiltzaileak.

10. Jabari publikoa izanik Udalak bere gain hartuko ditu lege dagozkion erantzukizunak. Nolanahi ere, udal-baimenaren titularraren gain izango dira, ibilgailuak jasan ditzaken kalte eta galerak, eta horien artean daude lapurretak edota hirugarrenen parte-hartzeak sortutako kalte eta galerak, jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak ez baitakar berekin ibilgailuen depositu izaerarik.

11. Antolamendua aldatuko balitz, Udalak emandako baimenak aldatu edota bertan behera utzi ahal izango ditu.

Azpeitia, 2012ko maiatzaren 9a.—Alkatea. (4428)

2. La persona titular de la licencia podrá utilizar las instalaciones y/o servicios de dicha área. En todo caso, la inspección de las instalaciones y/o servicios del área correrá a cargo de la Asociación BAGOAZ, y la persona usuaria deberá cumplir las condiciones de uso que dicte la Asociación.

3. Las instalaciones y/o servicios serán utilizados única y exclusivamente para aparcamiento y mantenimiento de las autocaravanas autorizadas.

4. Queda terminantemente prohibido el lavado de las autocaravanas así como el campismo, dentro de las instalaciones.

5. Una vez definidas las plazas de aparcamiento, éstas deberán ser respetadas y ante la ausencia de las autocaravanas, se podrá aparcar un coche en la misma. En todo caso, se advierte que la finalidad de esta área son las caravanas y autocaravanas, y no los restantes vehículos. Por ello, no podrá dejarse aparcado el auto de modo continuado (mientras estén viajando con la autocaravana).

6. Es obligatorio el buen uso de los servicios e instalaciones por parte de las personas usuarias, así como la notificación a la junta directiva de la Asociación BAGOAZ, en el caso de observar anomalías o funcionamiento incorrecto de las mismas. Dicha Junta Directiva se pondrá en contacto con el Ayuntamiento para subsanar las deficiencias detectadas. El mantenimiento de estos servicios, incluida la puerta y vallado del aparcamiento, será responsabilidad del Ayuntamiento.

7. El Ayuntamiento no podrá conceder licencias si no existieran plazas libres en el área. En todo caso, se confeccionará una lista de espera en caso de que no haya plazas libres, para cubrir por orden cronológico las vacantes que pudieran ocurrir.

8. La licencia de uso del aparcamiento se concederá hasta finalizar el año, y se prorrogará anualmente, previo abono de la tasa correspondiente, y en todo caso, si no existieran objeciones por parte del Ayuntamiento o los copropietarios.

9. Las personas usuarias deberán abonar la tasa exigida en la Ordenanza municipal del aprovechamiento especial del dominio público municipal.

10. Al tratarse de dominio público, el Ayuntamiento asumirá las responsabilidades que legalmente le corresponden. En todo caso, correrán a cargo de la persona titular de la licencia municipal los daños y desperfectos que pudiera sufrir el vehículo, entre ellos los robos y los daños y perjuicios ocasionados por la participación de terceros, ya que el aprovechamiento especial del dominio público no conlleva la naturaleza de depósito de vehículos.

11. Caso de que la ordenación sufriera modificaciones, el Ayuntamiento podrá modificar o cancelar las licencias concedidas.

Azpeitia, a 9 de mayo de 2012.—El alcalde. (4428)